

“Hitz hark durundi egiten zidan buruan, zigor bat edo gaixotasun sendaezina duen gaixoaren diagnostikoa balitz bezala”

ERREFUXIATUA ZARELA ONARTZEA

MARIJANA ILIC



OHALA JAITSI ZENEAN, KORRIKA IRTEN ginen denak agertokitik; atzean, txaloen hotsa entzuten zen. Aldagelako atearen ondoan bi gizon zeuden, batek mikrofonoa zuen eskuan, eta besteak, berriz, kamera besa-gainean. Mikrofonoa zeraman gizona niregana hurbildu zen, eta zera esan zidan:

“Kaixo! Izugarritzko lana egin duzu. Esaguzu zuri buruzko zerbait. Noiz eta nola hasi zinen antzerkian, edo aipatu nahi duzun beste edozer...”

Gizonari eta mikrofonoari begira gelditu nintzen. Lehenbizi, nire buruaz ezin esan nituen hainbat gauza etorri zitzaidan burura.

Aspaldi, errefuxiatua izan nintzen. Adin horrekin haurra beste ezer ezin izan nintekeela eta mundua mundu zen bitartean nire jolaslekua hantxe egongo zela pentsatzen nuen, baina berehala ohartu nintzen oso oker nebilela.

Bidei buruzko istorio bat da hau: egindako bideari eta hasi berri dudana ibilbideari buruzkoa, hain zuzen. Lehenengoak bizi-bizirik dirau oraindik ere nire gogoan, eta bigarrenari buruz, berriz, itxaropen batzuk ditut, baina lausoak.

Lehenengo bidea amaren eskutik egin nuela gogoratzen dut. Beste familia batzuk ere bazeuden, batzuk autokin, besteak traktoreekin, amonak, izebak... Guk ez genuen halakorik. Ama eta biak bakarrik geunden.

Bide hura ezezaguna zen niretzat, eta ez zen amak nahita hautatutakoa ere, jakina. Bide guztian ez nintzen amaren eskua askatzera ausartu. Bost urte nituen nik, eta amak, 29; hala ere, biak oso txikiak ginela sentitzen nuen.

Jendetzak bultzatu egiten gintuen; gure herrixka sutan eta kez inguratuta zegoela ikusi nuen, eta ohelagun nuen felpazko pinguinoari zer gertatu ote zitzaion galdetzen nion nire buruari. Nire jostailuak gogoratzen nituenean, bihotza tristuraz eta begiak malkoz betetzen zitzaizkidan. Neka-neka eginda nengoen eta nire ohean lo egin nahi nuen. Bukatuko al zen noizbait bide hura? Eta zer aurkituko genuen bukaeran, bidearen amaieran?

Bidean oinez gindoazela, aita hil egin zutela jakin genuen senide baten bitartez. Osabaren hitz nahasiek, aurpegia ziprirtintzen zidaten printza txiki haiek, ez zidaten pentsatzen uzten. Ez nuen aita gehiago ikusiko!

Amak tente iraun zuen, mugitu gabe, oinei finko begira; eskua izerditzen hasi zitzaion. Ez nion eskua askatu; aitzitik, gehiago hurbildu nintzaion, eta eskua estutu nion. Oinei so, buruaz baietz egin zuen amak, eta amaitutzat eman zuen elkarrizketa.

Osabari begiratu nionean, hura ere aitari agur esaten ari zitzaiola ohartu nintzen. Elkarrizketa haren amaiera gure itxaropenen amaiera ere izango zen, beharbada. Une horretan amari begietatik malkoak zerizkiola ikusi nuen.

Bide amaigabe hura negar batean egin zuen amak, gelditu gabe. Bidearen amaieran, ez genuen inor zain, ezta non kokatu ere. Leku batetik bestera eramaten gintuzten, eta leku haietako bat bera ere ez zen gure etxea. Ez genuen aurkitu aita gure zain.

Behin, zerbait jateko geldituta geundela, amari begiratu eta zera esan nion:

“Ama, arren, ez ezazu negarrik egin”. Amak burua laztandu eta musu eman zidan masailean, samur-samur: “Asko maite zaitut, laztana”. Sudurra amaren lepoan jarri eta ama besoez inguratuta, gauzak bere onera etorriko zirela iruditzen zitzaidan. Ez nuen askorik behar! Gerora, askotan pentsatu izan dut horretan: ezer gutxi behar duzu haurra zarenean.

Lehenengo aldia

Azken helmugara iritsi ginean entzun nuen lehen aldiz “errefuxiatu” hitza. Ulergaitza zen niretzat ordura arte inoiz entzun gabea nuen hitz batez definitutako pertsona bihurtu izana. Eta ez dut inoiz jakin metamorfosi hura zehazki noiz gertatu zen: ez dakit nire herritik irten nintzenean bihurtu nintzen errefuxiatu, edo bidaian zehar, edo zentro kolektibora iritsi ginean. Ez dakit zergatik, baina errefuxiatu, aita hil zen unean bihurtu nintzela pentsatzen nuen.

Amak “noizean behin” lan egiten zuen, eta ni haur eskolara itzuli nintzen. Jende asko joaten zitzaigun zentzora bisitan. Errotulu handiz margoturiko automobil asko joaten ziren, eta automobil haietako jendeari langile humanitario esaten zieten.

Bizileku berri hartan, ez genuen lagunik, guregana bisitan etortzeagatik kobratzen zuen jendea baizik. “Adiskide” profesionalak ziren. Nire urtebetetze festara etorriko ote ziren edo oparirik ekarriko ote zidaten galdetzen nion nire buruari, edo nirekin jolasean aritzeko beren seme-alabak ekarriko ote zituzten. Baina bestelako adiskidetasun mota bat zela ikasi nuen; adiskidetasun mota horretan ez zen beharrezkoa gainaraken izena jakitea ere.

Besteak beste, amak su txiki bat lortu zuen gelarako; “ACNUR” letrak zituen idatzirik. Lehenbizi, letra haiek ezabatzen saiatu nintzen, baina ezinezkoa zen, eta, gero, nire koadernoan kopia nituen.

“Zertarako da hau, ama?”, galdetu nion behin. “Ezertarako ez, alaba. Errefuxiatuak garela ez ahazteko”. Horren ondoren, ez nuen berriro nire koadernoan halakorik idatzi, eta ez nuen begiratu ere nahi izaten.

Eskolako neska-mutilek “errefuxiatu” esaten zidatenean, hitz hark durundi egiten zidan buruan, zigor bat edo gaixotasun sendaezina duen gaixoaren diagnostikoa balitz bezala. Askotan, gaixoa banintz bezala sentitzen nintzen. Hainbat oroitzapenek atsekabetzen ninduten: iraganeko oroitzapenek, aitarekin lorategian ibiltzen nintzenekoak, eta oroitzapen berriagoak ere bai, ni izendatzeko, “errefuxiatu” izengoitiaren orde, “nerabe” erabil zezaten borrokan jardun nuen garaioek.

Konpromisoa

Egun batean, gure “lagun” berri haietako bat mailegu batzuei buruz hitz egitera etorri zen. Zerbaitetan hasi nahi zuen edonork eska zitzaizkela azaldu zigun.

“Zer deritzozu?”, galdetu nion amari.

“Ez”.

“Baina, ama, saiatu”.

“Ez, hori ez da guretzat. Ez didate emango. Hutsaren hurrengoa naiz. Errefuxiatu bat besterik ez naiz”.

Beste behin, igande goiz batean, liburuxka batekin etorri zitzaidan ama. ACNURek antzerki taldea antolatzen nahi zuen, eta 7 eta 16 urte bitarteko haurrei antzezle gisa aritzeko gonbita egiten zien. Nik ez nituen begiak telebistatik kendu.

Amak honela esan zidan:

“Zer iruditzen zaizu?”

“Zeri buruz ari zara?”

“Antzerki talde horri buruz. Izena eman beharko zenuke. Ona izango litzateke zuretzat”.

“Ez, hori ez da niretzat”.

“Eskolatik kanpo beste zerbait egitea komeniko litzazuke-ela iruditzen zait. Antzerkian jarduteak mesede egingo lizukeela uste dut”.

“Beharbada. Baina hori ez da niretzat. Oso ondo nago nagoen moduan”.

Elkarri begiratu genion. Eserlektutik altxatu, eta zera galdetu nion:

“Zergatik ez duzu, orduan, mailegu hori eskatzen?”

“Ez da gauza bera”.

“Benetan? Oso ondo. Bada, hau ere ez da gauza bera”.

“Entzun ongi, zu gaztea zara. Zure buruari begiratu behar diozu...”. Amaitu aurretik, eten egin nion.

“Ama, entzun zuk. Honelaxe daude kontuak: zuk mailegua eskatzen baduzu, ni antzerkira joango naiz”.

Elkarri begiratu genion, eta burua laztandu zidan. Oso gutxitan egiten zuen irribarre, eta horretarako gauza zela ere ahaztuta nuen ia. Ama zein ederra zen gogoratu nuen, inoiz ikusi ditudan begirik samurrenak zituen.

Baietz egin zuen buruaz, eta zera esan zidan, irmo:

“Ondo da. Halaxe egingo dugu”.

Pozez zorutzen nengoen; altxatu, eta besarkatu egin nuen. Sudurra amaren lepoan jarri eta ama besoez inguratuta, gauzak bere onera etorriko zirela iruditzen zitzaidan. Eta berriro ere pentsatu nuen ezer gutxi behar nuela. Belarrira xuxurlatu nion:

“Saiatu eta porrot egiteko beldur zara?”

Baietz egin zuen buruaz. Bidea oinez egin genuenetik negarrez ikusten nuen lehenengo aldia zen.

Gau hartan, oheratu aurretik, argazki bat atera nuen tiraderatik: bi gurpileko bizikleta berrian nindoan, eta aita laguntzen ari zitzaidan. Argazkiaren atzealdean hitz hauek irakurri nituen, lehenengo aldiz: “Saiatzen ez bazara, ez zara inoiz bizikletan ibiliko”.

Argazkia masailari itsatsita eduki nuen une batez eta gero esan nuen:

“Ama?”

“Bai?”, erantzun zidan berak, ohetik.

“Ezer ez. Zure ahotsa entzun nahi nuen”, esan nuen.

Eta saiatzea nahi dut, pentsatu nuen.

Aldagelako atearen aurrean, kazetariak besotik heldu ninduen: “Eser gaitetzen hemen”, esan zuen, korridorean zeuden aulki pare bat seinalatuz. Kamera atzetik etorri zitzaigun.

Eseri egin ginen, eta ingurura begiratu nuen. Une horretan, kameraren argi gorria piztu zen, eta hizketan hasi nintzen:

“Antzerki taldean 10 urte nituela hasi nintzen nerabe bat naiz...”.

“Errefuxiatu” hitza entzun nuen lehen aldiz.
Ulergaitza zen niretzat ordura arte inoiz entzun gabea
nuen hitz batez definitutako pertsona bihurtu izana.